

Kultura

Deialdia luzatu diete taldeei Durangaldeko III. Maketa Lehiaketan parte hartzeko. Urriaren 17ra arte eman daiteke izena. > 12



Aitor Lopez zaldibartarrak hartu du Amankomunazgoko presidente kargua Oskar Zarrabeitia ordezkatzuz. Hiru hamarkada eta erdian jeltzaleek gobernatu eta gero, EH Bildu heldu da agintera orain. > 3

Aldaketa historikoa Amankomunazgoan

Autzaganeko tunela amaitzeko urte bi iraungo duen proiektua onartu dute

Imanol Pradales diputatuak Autzaganeko tunelaren gaineko argibideak eman ditu, asteon. Aldundiak obretako enpresa taldeagaz zuen kontratua hautsi zuenetik, lanak etenda daude. Tunela amaitzeko, 25 hileko egikaritze epea dute. Era berean, proiektuak 21 milioiko aurrekontua du. > 2

“Txikitoa pezeta batera igo genuenean, manifestazioa egin ziguten txikiteroek” >10

Josefi Izacelaya | Gure Kabiya taberna



hitz #gomendioak
artekalea 14, durango
946 810 776
info@hitzliburudenda.com
liburudenda

 HELDUENTZAT ULISES James Joyce (2015)	 UME ETA GAZTEENTZAT BASILIUS HOFFMANEN MUNDU SEKRETUA Fernando C. Cimadevilla (2015)	 MUSIKA COLOR HITS Los Bichos (2015)
--	---	--

A. Urreta podologoa

Abinara Urreta Jainaga

- Oinetako patologiak
- Neurria egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ MAPFRE

Herriko gudarien kalea,
10, behea - 48200
DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

R.P.S. 214006

Durangaldea > 4

Berbalagunek Mintzodromoak antolatuko ditu herririk herri

Durango > 6

1.000 pultseratik gora saldu dira Angelman sindromedunen alde

Durangaldea > 3

Organikoa batzeko sistema lau herritara zabaldu dute

Zaldibar > 8

Salgai daude minbiziaren ikerkuntzan laguntzeko egutegiak

EH Bilduk gobernatu du Amankomunazgoa, lehenengoz

Aitor Lopez zaldibartarra hautatu dute Amankomunazgoko presidente izateko



Aitor Lopez, eskuman, Amankomunazgoko presidente lez lehenengo adierazpenak ematen.

DURANGALDEA J.G. / M.O. Hiru hamarkada eta erdiren ostean, EAJk Amankomunazgoan eduki duen aginte makila EH Bilduk hartu du. Ondorioz, lehenengoz gobernatu du ezkertiar eta abertzaleek. Indar aldaketa historiko hori atzo gauzatu zen, Astolan eginitako bilkuran. Koalizioaren botoekin, eta Herriaren Eskubidearen (Podemos) absten-

tzioak lagunduta, Aitor Lopez zaldibartarra aukeratu zuten presidente. Oskar Zarrabeitiak -azken lau urteetako presidentea eta EAJren hautagaia- Lopez zoriondu zuen amaieran.

Pozik hartu zuen kargua Lopezek: "Erroka handia izango da, baina polita ere bai. Aldaketa ezkerretik dator Durangaldera". Beste alderdiei elkarlanera gonbita egin zien.

Lopezek hurrengo lau urteetako ildoan berri eman zion prentsari. Bere arabera, gizarte politikari emango diete garrantzia, eta baita eskualdeko ekonomia indartzeari ere. Horrela, tokiko garapenerako arlo bat sortzeko asmoa dute, eta partaidetza izango ei da euren jardunaren oinarrietako bat. Bestalde, zabor bilketari dagokionez, aurreratu zuen ez dutela alda-

keta sakonik egiteko asmorik. Organikoa batzeko, bosgarren kontainerraren hedapenean murgilduta dago Amankomunazgoa. "Gaur egungo sistemak, hobetzeko aukerak ematen ditu, eta oraindik lan asko dago egiteko". Behargintza, hainbat kirol instalazio, eta euskara zerbitzua ere gestionatuko ditu.

Frankismotik gaur egunera Jose Luis Lizundia Gerediaga elkarteak gogoratu duenez, Durangaldeko kohesioa indartu guran, alkateek batzarra egin zuten Gerediagan, 1966ko abuztuaren 6an, Salbadore egunez. Hitzordu horretan, Gerediaga elkarteak Amankomunazgoa sortzeko proposamena egin zien. Urte batzuk geroago sortu zuten, ofizialki, Durangoko Merinaldeko Amankomunazgoa, 1974an. Francisco Amorrortu erregimeneko presidentea buru zuela ekin zion bideari.

Franco hil ostean, berriz, EAJko presidente ugarik zuzendu dute eskualdeko erakundea. Balendin Lasuen zaldibartarra izan zen lehenengo presidente jeltzalea. Haren ostean, Carlos Aiartzaguena (Berriz) -dimititu egin zuen eta Jose Martin Etxebarria iurretarrak ordezkatu zuen-, Maria Angeles Larrauri (Abadiño) eta Oskar Zarrabeitia (Izurtza) izan dira Amankomunazgoaren buru. Tartean, 1999an, Garaik eta Berrizek Amankomunazgotik irtetea erabaki zuten. Orain, EH Bilduri dagokio eskualdearen alde lan egitea.

Familia barruko harremanak euskalduntzeko ekimena

DURANGALDEA J.G.

Amankomunazgoko Euskara Zerbitzuak eta Bizkaiko Urtxintza Eskolak *Familian euskaraz jolasean* programa jarri dute martxan. Ekimenaren helburua familia barneko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea da. 3-5 urte bitarteko haurrak dituzten familiek parte hartu ahal izango dute ekimenean. Hala ere, Atxondon eta Mañarian, 8 urtera arte zabaldu dute adin tartea. Urtxintza eskolako hezitzaileek ordubeteko saio ludikoak eskainiko dituzte. Euskarazko jolas eta abestiak guraso eta umeei erakustea da

Euskarazko jolas eta abestiak guraso eta umeei erakustea da ekimenaren helburua

asmoa, ondoren, etxean edo beste edozein lekutan praktikan jar ditzaten. Gainera, herri bakoitzeko azken saioan disko bana banatuko diete parte-hartzaileei. Guztira, 28 saio egingo dituzte Durangalde osoan, irailaren 17tik urriaren 30era (egutegia: www.durangaldea.eus).

Organikoa batzeko sistema lau herritara zabalduko da

Urrian, informazio batzarrak egingo dituzte

DURANGALDEA M.O.

Materia organikoa batzeko sistema Atxondora, Elorriora, Zaldibarrera eta Abadiñora (Traña-Matienan badago martxan) hedatuko da datozen asteetan. Herritarrak sentsibilizatu, eta birziklapen tasa (%25,

2014an) igotzeko helburua du Amankomunazgoak. Herriguneetan bosgarren kontainerra -marroia- ipiniko dute, eta baserri eremuetan zein txaletetan autokonposta bultzatuko dute.

Urrian, informazio batzarrak egingo dituzte, herririk he-

rri, interesa dutenei begira. Bertan azalduko diete zer materia bota ahal den eta zer ez, eta egunerokoan birziklatzeko tresnak ere emango dizkiete. Etxe bakoitzerako, ontzi bat eta 150 poltsa berezi egongo dira eskura, eta kaleko edukiontzia zabaltzeko giltza ere bai. Baserrietarako, autokonpostagailuak eskainiko dituzte. Guztira, 924 ontzi dituzte prest antolatzaileek, eta baita 167 autokonpostagailu ere.

Horrez gainera, Agenda 21ean parte hartzen duten eskolatan ere jardungo dute.



Amankomunazgoko eta udaletako ordezkariak, aurkezpenean.



Baserritarren eta Euskal Herriko basoen zerbitzura

Etxebarrieta auzoa - 48215 Iurreta
Tel.: 946 205 187 - Faxa: 946 205 194

Berbalagunek Mintzodromoak antolatuko ditu herririk herri

Egitasmoan parte hartzeko deia egin dute Platerueneko aurkezpenean




Berbalaguneko parte-hartzaileak eta antolatzaileak bildu ziren, martitzenean, Platerueneko aurkezpenean.

DURANGO Jone Guenetxea Euskaraz berba egin gura duenak solaskide euskaldunak behar ditu inguruan. Euskaraz jarduteko espazio horiek sortu guran, Berbalagun egitasmoa aurkeztu dute Durangon.

Egunerokotasunean sortzen diren gaiez “natural” berba egiteko aukera eskaintzen du Berbalagunek, Amaia Ezenarro ekimenaren koordinatzaileak Platerueneko aurkezpenean adierazi duenez. Batetik, urtero bidelagunak izaten dituzte, euskaraz berba egiteko elkartzan diren taldeetako akuiluak. Bestetik, bidelariak daude, euskaraz sentitu eta emozionatu nahi dutenak. Hauek guztiak, kafe baten inguruan bildu, eta berriketan egiten dute Berbalaguni esker. Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentek Ber-

balaguneko parte-hartzaileei zuzenduz adierazi duenez, “zuen borondaterik barik, ekimena ez litzateke posible izango”. Era berean, Amankomunazgoak ekimena babesten jarraituko duela aurreratu du. Aurten, Berbalaguneko arduradunek tabernari eta merkatariengana joko dute. Beste nobedadeetako bat Mintzodromo da. Egitasmoa indartu guran, Durangaldeko ekimenaz gainera, herririk herri mintzodromoak antolatuko dituzte. Aurten ere, ekintza osagarriak egiteko asmoa dute.

15 urte dira Berbalagun martxan jarri zutenetik. AEK, Durangoko Udal Euskaltegia, Durangoko Hizkuntza Eskola eta Berbaro euskara elkarte dira antolatzaileak. Durangaldeko udalak eta Amankomunazgoa berriz, babesleak dira.



Alvaro Rodriguez

Elorrio

Berbalagun zertarako?

Euskaraz berba egiteko aukera ematen dit. Gainera, jende berria ezagutzen duzu.

Zein taldetan parte hartzen duzu Berbalagunen?

Elorriion dihardut. Taberna batean elkartzan gara, eta pote bat edo bi hartzen ditugun bitartean, euskaraz berba egiteko aprobetxatzen dugu.

Nori gomendatuko zenioke?

Euskara ikasten dabilen edonori gomendatuko nioke Berbalaguneko talde batean parte hartzea. Ni oso eroso sentitzen naiz. Oso leku ederra da euskaraz jarduteko.



Amaia Olabariaga

Matiena Abadiño

Zer da Berbalagun zuretzat?

Berba egiteko talde bat da, eta lagunak aurkitzen dituzu bertan.

Zer aurkitu duzu Matienako taldean?

Ni Lekeitiotik Matienara etorri nintzenean, Extremadura txiki bat zela iruditu zidan, oso erdalduna. Horrelako talde bat topatzea aurkikuntza bat izan da niretzat. Zer edo zer berria. Euskaraz ikasteko ahalegin handia egiten duen jendea aurkitu dut, eta, horretarako, prest daudenei laguntzen saiatzen naiz. Taldean oso jende desberdina dago, euskara maila oso desberdinekoa, beraz, edonori parte hartzeko dei egingo nioke.



Ana Nieves

Matiena Abadiño

Zelan deskribatuko zenuke Berbalagun?

Euskaraz hitz egiteko dudak lekua da.

Non elkartzan zarete?

Astean behin, Matienako elkarte batean batzen gara. Normalean, kafea hartzen dugu.

Aurrerapausoa nabaritzen duzu?

Bai, niri Berbalagunek euskaraz berba egiteko konfiantza ematen dit.

Gomendagarria da?

Oso ondo sentitzen naiz taldean, eta giro bikaina dugu. Gustura nago, eta edozein pertsonari parte hartzeko gomendatuko nioke.



Bego Bastegieta

Durango

Zelan deskribatuko zenuke Berbalagun?

Berbalagun itzela da niretzat. Lagunekin batu, eta euskaraz berba eginez kafe bat hartzen dugu. “Bikain plus” da Berbalagun. Horrela hasi naiz berriro euskaraz berba egiten.

Ekimen honek zer eman dizu?

Niretzat, printzipalena da, euskaraz egiteko aukera ematen didala. Orain arte, ez dut euskaraz berba askorik egin, eta kalean gutxiago, umeekin bakarrik. Orain, lagunartean ere, giro ederrean euskaraz berba egiten hasi naiz. Edonori proba egitea gomendatuko nioke.



Begoña Urresti

Iurreta

Zer da zuretzat Berbalagun?

Euskaraz berba egiten ikasteko leku bat da. Gainera, lagunak egiteko aukera ere ematen dit. Etxetik oso gertu egiten dugu hitzordua, beraz, martitzenak pozik hartzen ditut, badakidalako Berbalagun dudala.

Zer egiten duzue?

Kafe baten inguruan batzen gara. Ni oso berritsua naiz, beraz, pozik joaten naiz. Lantzean behin, Ziortzari [irakaslea] galdetzen diot esan gura dudak hori euskaraz zelan esaten den, eta aurrera egiten dut.

Berbalagunek zer ematen dizu?

Euskaraz egiteko leku bat eskaintzen dit, baita lagunak ere.



Gurutze Aiertzaguen

Zaldibar

Zelan hasi zinen parte hartzen?

Gonbidapen bat izan nuen. Hasieran, urduri nengoen, baina, orain, oso pozik joaten naiz. Lagun mordoa egin dut. Zaldibarko euskararen egiten dut, baina saiatzen naiz nire euskara uler dezaten. Lagunartean egoteko aukera ona da.

Zer egiten duzue Berbalagunen?

Berba ordubete inguru, kafea hartu bitartean, Zaldibarren. Gai guztiak lantzen ditugu. Politika, etxeko gauzak, umeen kontuak, senarrarenak...

Zer ematen dizu Berbalagunek?

Euskararen alde zeozer egiteko aukera ona da. Gainera, lagunartean egoteko aitzakia ona da.



Roberto Perez


Matiena Abadiño

Zergatik zaude Berbalagunen?

Santiago de Compostelan jaio nintzen, eta, orain dela asko, Euskal Herrira etorri nintzen. Berbalagunekin euskara praktikatzeko aukera bat dut, era ez serio batean. Euskaraz bizitzeko aukera bat ematen dit. Lagunekin inolako presiorik barik berba egin dezakegu.

Berbalagunen, zein helbururekin parte hartzen duzu?

Etxean, emaztea eta semeak euskaldunak dira, baina emaztea erdaraz eza-gutu nuenez, etxeko hizkuntza, neurri batean, erdara da. Matienako giroa erdalduna denez, Berbalagunek euskaraz mintzatzeko aukera eman dit, baita lagun berriak egiteko ere. Horixe da Berbalagunen parte hartzeko asmoa.



Esther Ekizabal

Durango

Gustura al zaude Berbalagunen?

Oso pozik nabil. Ikasten dabiltzanak eta beti euskaraz hitz egiten dugunok elkartzan gara. Kafe bana hartu, eta, berba eginez, ordubete arin pasatzen da. Eguaztenetan batzen gara, 12:00etatik 13:00etara. Batzuk euskaldun zaharrak gara, eta beste batzuk euskaldun berriak.

Zer ikasi duzu bertan?

Ni euskaldun zaharra naiz, eta aditzak ez ditut hain ondo esaten. Beraz, ikasteko aukera eman didala aitortu behar dut. Bestalde, ikasten dabiltzanei zein euskaraz gutxi hitz egiteko aukera dutenei ere gomendatuko nioke. Gainera, taldean jende desberdina ezagutzeko aukera izaten da.



#lotsarikgabe

praktikatu gurekin



Izan zaitez Durangaldeko berbelagun!
Izena ematekoan ARK euskaragilekin, Durangako Udal Euskaragilean, Hieturitzako Eskolan eta Barberan

639 4111 786

www.durangakomunak.com
durangakomunak@durangakomunak.com

Partekatu eta



Partekatu



1.000 pultseratik gora saldu dira Angelman sindromedunen alde

Urriaren 3an, Angelman sindromearen inguruko jaialdia egingo da, Landakon



Pultsera erosi duten hainbat herritarrek, argazkia atera, eta Facebooken partekatu dute.

DURANGO Markel Onaindia Martxoaren 15ean, haur minbiziaren kontrako elkartasun olatuak busti zuen Durango, eta badirudi olatu horrek urriaren 3an edukiko duela segida, Angelman sindromea duten umeen aldeko jaialdian. Izan ere, kan-

paina indarra hartzen dabil, eta herritarren babesa jasotzen dabil, gainera. Hori azaldu du Idurre Baraiak, Durangaldean Angelman sindromeagaz dauden bi umeetako baten amak. 2.000 pultsera ipini zituzten salgai, eta, dagoeneko, 1.000tik gora

saldu dira. Gainera, 27 denda eta taberna itsulapikoak ipintzeko prest agertu dira. Urriaren 3an Landako Gunean egingo den jaialdirako ere elkarte eta enpresa ugari laguntzeko prest daude. “Oso pozik eta harrituta gaude”, adierazi du Baraiak.

Irribarredun umeak

Gaixotasun arraro moduan izendatuta dago Angelman sindromea, 20.000 eta 30.000 jaiotza arteko tartean, kasu bat egoten delako. Besteak beste, adimen garapenean atzerapena eragiten du, eta berba egiteko traba, eta mugitzeko koordinazio eskasa ere bai. Gainera, etengabe irribarretsu egotea ere bada gaixotasunaren seinaleetako bat.

Durangaldean dauden ume bien familiek, sindromearen berri eman, eta ikerketarako dirua batzeko asmoa dute, urriaren 3an. Zumba maratoniagaz hasiko da Landako Gune topaketa, 16:00etatik 18:00etara bitartean. 18:00etatik 20:00etara umeentzako tailerrak eskainiko dituzte, eta 20:00etatik aurrera Zirkinik Bez taldearen erromeriak emango dio amaiera ekitaldiari.

Pultserak oraindik salgai daude, hiru euroan, Durangoko Metro, Bizibike eta Loiro dendetan, Iurretako Arriandi okindegian, Traña-Matienako Oxford tabernan eta Elorrioko Eroski dendan.

Nekazaritza Ekologikoaren Azoka, Marisatsak antolatuta

DURANGO M.O.

Marisatsak, produktu ekologikoen ekoizle eta kontsumitzaile elkarteak, V. Nekazaritza Ekologikoaren Azoka antolatu du bihar goizeko. Andra Mariko arkupean ipiniko dute azoka, eta, antolatzaileen arabera, hamasei bat postu egongo dira produktuz beteta. Durangaldeko ekoizleak eta kanpotik etorritakoak ere izango dira saltzaile. Gainera, Marisatsak eta Goiener energia kooperatibak informazioa emateko guneak ipiniko dituzte.

Bestalde, Marisatsak deituta ere, Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista etorriko da Durangora astelehen honetan, bere *Bizi baratzea* liburua aurkezten. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da berbaldia, Pinondo Etxean.

Adinekoen Egunean, Durango izango da topagune

DURANGO M.O.

Urriaren 1ean, Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatuko da, eta Durango izango da eskualdeko nagusientzako topagune. Izan ere, gainerako herrietatik ibilaldiak irtengo dira goizean, eta Durangon elkartuko dira, eguerdian. Andra Marin ekitaldia egingo dute, eguneko adierazpena irakurtzeko, besteak beste.

Amankomunazgoak eta Durangoko adinekoen sailak sustatu dute egunaren ospakizuna, baina nagusien elkarrekin inoiz baino ardura gehiago eduki dute antolaketan. Durangaldean, 15 elkarte daude une honetan, guztiak herri mailakoak, Bizidun izan ezik. Bizidunekoek zahartze aktiboaren inguruko ekintza ugari egiten dituzte urtean zehar, eta horien artean, mendi ibilaldiak daude. Horrela, eurek antolatu dituzte urriaren 1eko ibilaldiak. Durangon hiru hasiko dira Andra Marit, 08:30ean, 09:30ean eta 10:00etan. Atxondon, Elorrioren eta Zaldibarren, 08:30ean irtengo dira; Berrizen, 08:45ean, eta Abadiñon, 11:00etan. Andra Marira guztiak ordu antzekoan heltzeko asmoa dute.

Bestalde, martitzenean, adinekoen arazoaren inguruko berbaldia egongo da Durangoko Elkartegian, 17:30ean.

Udal batzordeen funtzionamendua ez dela egokia uste du EH Bilduk

ABADIÑO I.E.

“Udal Batzordeen dinamika ez dela egokia deritzogu”, dio Abadiñoko EH Bilduk, asteon komunikabideetara bidali duen prentsa oharrean. Batzordeen funtzionamenduari lotuta, Udal bozeramaile batzordean hainbat proposamen egingo dituztela aurreratu du Abadiñoko EH Bilduk.

Besteak beste, Udal batzordeak gutxienez hilean behin elkartu daitezela, batzordeak herritarrentzat irekiak izatea, eta deialdiak eta aktak udalaren webgunearen bitartez publiko egitea, eta batzordeen funtzionamendua egokia dela bermatzeko, jarraipen batzorde bat sortzea proposatuko dute.

Batzordeak irekiak izan daitezela, eta deialdi eta aktak publiko egin ditzatela eskatuko du EH Bilduk

“Herriko gai eta proiektu ezberdinen lanketa bertan egiten denez, batzordeen dinamizazio zuzena beharrezkoa” dela uste du EH Bilduk. Salatu dute, legegintzaldi honetan, oraindik ere hainbat batzorde deitu barik daudela, eta “batzordeek ez dutela maiztasun jakinik”.

Hontza museoko erakusketa, handiagoa

Hontzako biltegia erakusketarako egokitu dute

MAÑARIA M.O.

Hontza museoa pauso berriak ematen dabil, eta jakinarazi dutenez, erakusketa handitu egin da. Izan ere, orain arte, eraikineko lehen solairuan baino ez zeukaten egokituta, baina, hemendik aurrera, biltegian ere hainbat animalia ipiniko dituzte. Atal bat animalia exotikoei buruzkoa izango da, eta bestea europarrei buruzkoa.

Duela hamar hilabete inauguratu zuten Hontza museoa Enrique Huertaren eskutik, eta, geroztik, 1.800 lagunek bisitatu dute. Horregatik, balantze positiboa egin dute arduradunek. Durangaldeko herritarrek izan

dira asko eta asko, eta euskaldun ez aparte, katalanak, madrildarrak, extremadurarrak, alemaniarak, edota kubatarak ere eduki dituzte bisitan.

Biltegiaren moldaketa ez da nobedade bakarra. Moluskuen inguruko aldi baterako erakusketa ere ikusi ahal da, ekainera arte.

Duela hamar hilabete inauguratu zuten Hontza museoa, Enrique Huertaren eskutik



Huerta, biltegioko erakusketa prestatzen.

Mantentze gimnasia saioetarako izen-ematea, zabalik

IZURTZA J.Derteano

Azken urteetan ohikoa den moduan, Izurtzako Udalak eta Erdoitzako Ama jubilatuen elkarteak mantentze-gimnasiaren inguruko saio bana hasiko dute laster: biak urriaren 6an hasiko dira.

Udalak antolatzen duen saioak bederatzita bat hile iraungo du. Mantentze-gimnasiaren inguruko aditu batek astean klase bi eskainiko ditu, urriaren 6tik aurrera: martitzenean eta eguenetan, 20:15etik 21:15era, Abadetxean. Izen-ematea udaletxean egin daiteke. Hiruhileko prezioa 25 eurokoa da. Denboraldi osoan parte hartzeko asmoa duenak 75 eurotan egin dezake izen-ematea.

Abadetxeko saioak astean birritan izango dira; jubilatuen lokalekoak, berriz, astean behin

Jubilatuaren elkartetik antolatzen dituzten saioak astean behin izaten dira: martitzenean, 17:00etatik 18:00etara. Azken urteetako dinamizatzaile berak emango ditu klaseak aurten ere. Izen-ematea jubilatuen lokalean egin daiteke, elkartearen batzordeko edonori jakinarazita (15 euro).

Salgai dago minbiziaren ikerkuntzan laguntzeko egin duten egutegia

Atzotik dago salgai hainbat herritarren argazkiekin egin duten egutegia



Minbiziaren ikerkuntzarako dirua biltzeko hainbat ekimen abiatu dituzte Zaldibarren. Prentsaurrekoa egin zuten atzo.

ZALDIBAR Itsaso Esteban Azken hileetan, hainbat zaldibartarren kolaborazioagaz osatu duten egutegia aurkeztu zuten, atzo arratsaldean, udaltxeko batzar aretoan. La Cuadri del Hospi elkarteari emango diote, atzotik salgai dauden 4.000 egutegien salmentatik lortzen duten dirua, minbiziaren ikerkuntza bultzatzeko.

Hainbat zaldibartar, zein kirol eta kultura arloko hainbat pertsona ezagun agertzen dira egutegian, soinean arropa gutxi dutela batzuk. Lola Sanabria eta Andoni Mesa —ekimena abiatu zuten lagunak—, Arantza Baignorri alkatea, herriko harakina eta ileapaintzailea, futbolariak, musikariak, Pirritx eta Porrotx, edota Athleticeko jokalaria

agertzen dira, esaterako, Ritxi Perezen argazkietan.

Abenduaren 19rako, minbiziaren ikerketan laguntzeko dirua biltzeko maratoi bat antolatzeke lanetan jarraitzen du herritar talde honek. Atzo eskaini zuten prentsaurrekoan azaldu zuten, beharrean dabilta abenduaren 19rako, egun osorako ekitaldiak lotzeko.

Eskola legeztatu ahal izateko bide berriak lantzen dihardu udalak

ATXONDO J. Derteano

EAEko Auzitegi Nagusiaren epaiak baliorik barik utzi zuen, iazko otsailean eskola egiteko udalak Jaurlaritzari emandako lizentzia. Epai berak egoera legeztatzeko eman beharreko urratsak zehazten zituen. Uztail amaieran, plan berezi bat aurkeztu zuten udalbatzarrean, eta aho batez onartu zen, behin behinean, eta Aldundiaren eskuetan dago. Baina, bide hori ez da lantzen ari diren bakarria. Aldi berean, paraleloki, helburu bera lortzeko beste bide batzuk lantzen ere badabilta. Joan zen egueneko udalbatzarrean arau subsidiarioen aldaketa puntual bati hasiera eman zioten, aho batez. Laster, alegazioen epea hasiko da; horiei erantzuna emanda, udalbatzarrak behin betiko onarpena eman beharko dio, eta, ondoren, azken erabakia Aldundiaren eskuetan egongo da. Lantzen dabilta bide bietako bat onartzea nahikoa litzateke helburua lortzeko.

SEI HANKAKO MAHAIA

GOIZTIDI DIAZ
EAJ



Jaiak, elkartasuna

Hiru aste eskas falta dira gure Uriko Jaiak hasteko. Sumatzen da, usaintzen da, nabaria da gure kaleetan, gure plaza eta espaloietan jai gogoa. Heldu da Patxikotxuren espiritu jaizalea gure etxeetara. Eta laster izango dogu *Sanfaustoak* disfrutatzeke aukera. Aukera hobezina, gainera. Aspaldian dabil gure Jai Batzordea lan eta lan, ahalik eta programarik anitzena prestatu eta herritar guztiei eskaini ahal izateko. Lan itzela da adin guztiei eta gustu guztiei bideratutako ekimen, ekintza eta eskaintzak bateratzeko moduko jaiak egitea. Inor ahaztu edo baztertu barik. Herritar guztien (edo gehienen) nahiak aurrikusiz eta uztartuz. Eta, konturik interesgarriena, dan-dana jendearen esker onaren truke, hau da, debaldeko lan oparoen eginez. Eskerrik asko, eta biba zuek!

Danatarik danontzat. Eta inor ahaztu barik. Horixe da Jaietako lelorik nagusia. Bai eta egoera latzean bizi diren pertsonak ahaztu barik. Krisialdi ekonomiko luze honetan itxaropenik ikusten ez dabena albo batera itxi barik. Jaietan bai, baina elkartasunean be bai. Pertsona da ardatza eta, gehienbat, sufritzen dagoen pertsona.

Jaiak hastear, eta ni bukatzeaz. Amaitu baino lehen, omenaldi xume bat egin nahi deutset hainbat urtean Jaietako gata eta piperra izan diren bi kideei. Alde batetik, beti umoretsu eta alai izandako *Mundusi*. Bestetik, *Sanfaustoak* maitale amorratu eta EAJko zinegotzi zintzo izandako Natxo Martinezi. Agur eta ohore.

LABek elkarretaratzea egin du WAT enpresan

Sindikatuak enpresaren etorkizuna bermatzeko “plan serio bat” egitea eskatu dio zuzendaritzari

MALLABIA J. Guenetxea

LAB sindikatuak WAT Direcciones enpresaren aurrean elkarretaratzea egin zuen joan zen bariku goizean, Mallabiko Goitondo poligonoan. Protesta horren bidez, enpresaren etorkizuna bermatzeko duen eta langileen eskubideak errespetatuko dituen “plan serio bat” eskatu dio sindikatuak zuzendaritzari.

LABek dioenez, WAT enpresak 35 langile ditu gaur egun. Orain bost urte, 60 baino gehia-

go zituen. Orain lau hilabete, enpresak jabez aldatu zuen, eta, orduetik, zuzendaritzak erabaki “onartezinak” hartu dituela salatu du sindikatuak. “Uztailean, bost langile kaleratu zituzten kalte-ordainik gabe. Hilabete horretan, ez zizkieten aparteko ordainsariak ordaindu langileei, eta, gainera, soldatak jaitziko zituztela esan zuten”.

Gaineratu dutenez, “denbora honetan sindikatuoi ez digute etorkizunerako planik azaldu”.

Argi kontsumoa jaistea helburu kontratu berrian

Argiteria publikoaren mantenua lehiaketara ateratu du udalak, aurrezpen helburuak barneratuta

OTXANDIO J. Derteano

Orain arte, udaleko langileek kudeatzen zuten argiteria publikoaren mantenua enpresa bati esleituko dio udalak. Uztailan, baldintza orria argitaratu zuten, eta urriaren 9ra artekoa da proposamenak aurkezteko epea. 123.000 euroko zenbatekoa du. Urtea amaitu aurretik esleitu gura dituzte lanak. Alde batetik, argiteriaren mantenua, horretan aditua den enpresa batek egitea gura dute, eragin-korragoa delakoan. Mantenuaz

gainera, udalari energia kontsumoa jaisten laguntzeko irizpideak ere gehitu dizkiote baldintza orriari. Hau da, enpresa aditu horrek udaleko argiteria sarean energia kontsumoa jaisteko neurriak proposatu beharko dizkio udalari. Proposamen horien eraginkortasunak ordainketa baldintzatuko du. Baldintza hori aldagai moduan hartuta, aurrezpen den energia kantitatearen arabera, udalak enpresa horri gehiago edo gutxiago ordainduko dio.

katerin ardoak
inaki uribe

saltsan

Eguneko menuak - Asteburuak menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



Udaltzaingoa, erregistroa eta Herritarrendako Arreta Zerbitzua daude bertan

Bidebarrietara eroango dira Gizarte Zerbitzuak

“Eskuragarriago” egongo dira, eta bertoratuko diren pertsonentzat “diskretuagoa” izango da

IURRETA Aitziber Basauri
Udal Gizarte Zerbitzuak lekuz aldatuko dituzte laster. Hartara, udalak Bidebarrieta kalean dituen bulegoetara jo beharko dute herritarrek Ibarretxe kultur etxera beharrez. Hala ere, lekuz aldatzeak ez du bestelako eraginik izango. Orain arte moduan, astelehen eta ostegunetan eskainiko dituzte Gizarte Zerbitzuak. Horrela jakin eragin dute udal arduradunek.

Lekualdaketa horrekin, Gizarte Zerbitzuak herritarrengandik hurbilago egotea du helburu. Iurretako Udalak. Zerbitzu horiek “eskuragarriago” egongo dira, eta bertara doazen pertsonentzat “diskretuagoa” ere izango da, ohar baten bitartez azaldu dutenez. Bidebarrietako udal bulegoetan

Udaltzaingoa, erregistroa eta Herritarrendako Arreta Zerbitzua daude momentu honetan.

Espazio berria sortuko dute Gizarte Zerbitzuak bertora eroateko espazio berri bat sortuko dute. Gizarte langilearentzako bulego bat eta itxarongela bat egokituko dituzte. Horretarako, orain dagoen batzar-gela zatitu egingo dute.

Iñaki Totorikaguena alkateak azaldu duenez, “gaur egun dauden bulegoak egokitu egingo dira iurretaren beharrez. Erantzuteko, eta benetan uste dugu denontzat onuragarria izango dela. Zerbitzua hobetuko dela uste dugu”. Horretarako, 7.586 euroko aurrekontua lotu du udalak. Lanak esleituta, hilabete barru egingo dira prest.

Jai giroz bustitako egunak dituzte aurretik iurretarek

IURRETA A. B.
Montoitik botatako txapligoekin emango diete behin betiko ongietorria sanmigelelari. San Migel bezperan izango da hori. Hala ere, ekitaldiz jositako asteburua dute aurrean. Gaur gauean, kontzertua eskainiko dute Mikel Markez eta Eñaut Elorrieta musikariek, Olaburu frontoian. Ibarretxe kultur etxean, berriz, *El mesón de los suspiros* obra taularatuko du Gora Gora antzerki taldeak.

Graffitiak, Mikel Deuna herri lasterketa, Asto probak eta

Montoitik botatako txapligoekin emango diete behin betiko ongietorria sanmigelelari

tortilla txapelketa izango dira, besteak beste, bihar. Umeentzako ekintzek ere ez dute hutsik egingo: eurentzat herri kirolak eta erromeria egongo dira, esaterako. Gauerako, rock kontzertuak antolatu dituzte.

Domekan, berriz, XXVIII. Ahari Iurreta Martxa Zikloturista, umeentzako parkea eta paella txapelketa izango dituzte iurretarek aukeran. Elizara bisita gidatuak ere antolatu dituzte asteburuari begira.

San Migel eguna, jai eguna izango dute Iurretan. Dantzari eta agintarien kalejirak hasiko du eguna, irailaren 29an.

Jaien inguruko kexa eta ideiak, postontzian

ELORRIO M. O.
Udaletxeko arreta zerbitzuan eta Iturrin postontziak ipini ditu udalak, Ferixa Nausikoen inguruko kexa eta proposamenak jasotzeko. Idoia Buruaga alkateak (EH Bildu) adierazi du “hobetzen jarraitzeko” ikuspegiagaz pentsatu dutela herritarrei iritzia galdetzea, eta hurrengo urteetarako ideiak postontzietan sartzeko deia ere egin du.

Bestalde, Buruagak azaldu du, urrian, aparkaleku inguruko auzokideekin batuko direla, txosnen eta barraken kokalekuaz berba egiteko.

Senegaldarrak euren kultura partekatu guran

ELORRIO M. O.
Senegaldarren elkarteak Haware izeneko jaialdia antolatu du biharko, euren “kulturaren zati txiki bat” herritarrekin partekatu guran. Izan ere, euren gastronomia ezagutzeko aukera emango dute, 13:00etatik aurrera, frontoian burutuko den ekintzan. Besteak beste, couscousa, arraina eta edatekoak eskainiko dituzte. Plater bakoitza bost euroren truke hartu ahalko da, eta edaria euro batean.

Herritar guztiak gonbidatu dituzte eguerdipasa elkarrekin egitera.

> DURANGALDEA ASTEON

Errigoraren aurkezpena 30ean

DURANGO > Errigora proiektuaren aurkezpena egingo dute eguaztenez, 18:30ean, Platearuena kafe antzokian. Gainera, udazkenerako eskaintzaren informazioa ere emango dute. Nafarroa hegoaldeko jakiak banatzen dituzte, eta etekinaren zati bat euskararen alde izaten da.

Mikel Urdangarin, Okangoko jaietan

BERRIZ > Bihar hasiko dira Okango auzoko jaiak, eta Mikel Urdangarinek kontzertua eskainiko du, 20:00etan. Arratsaldeko 16:00etan altxatuko dute Donien Atxa, eta arratsalde osoan zehar, odolostek jateko aukera egongo da. Domekan, oster, Berrizko baselizetatik ibilaldia egingo dute.

Hezitzailea behar dute, Zapatublain

ZALDIBAR > Hilean bi zapatu arratsaldetan, hiru eta hamar urte arteko umeekin lan egingo duen hezitzailea kontratatu gura dute Zapatublai egitasmoaren arduradunek. Irailaren 30ean amaitzen da curriculumak bidaltzeko epea; haurrak@txatxilipurdi.com helbidera bidali behar dira.

> Iritzia



astekaria@anboto.org
asteartea 17:00ak arteko epea

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9,
48215 - Iurreta
• Izen-abizenak • telefona
• helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

-DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO-
Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

ANBOTOk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileen zutabeetan, iritzi artikuluetan edo gutunetan adierazitako eta emandako iritzien erantzukizunik.

> Berbaz

Josefi Izacelaya (Durango, 1932) eta Oihane Alacano (Durango, 1991) | Gure Kabiya iragana eta oraina

“Oraindik ere egunero etortzen naiz tabernara, egun onak ematera; eta, jarraituko dut”

Irailaren 30ean gogoratuko dute Gure Kabiya 50. urteurrena; 1975ean baino ez zituen itxi ateak, lehergailua jarri zutenean



> BERBAZ Aitziber Basauri
50 urte. Mende erdia bete du Gure Kabiya. Ilusioz gogoratu ditu Josefik Txarli senarragaz taberna zabaldu zuteneko garaia. Esker ona baino ez du Josefik herriarentzat. Bezeroekiko eskerdun agertu da Oihane ere, belaunaldi berriaren isla, Koldo Casado eta Iñigo Garridogaz batera. Irailaren 30ean modu berezian gogoratuko dute urteurrena. Aurrerago, urte guztian Gure Kabiya batutako jabe, maizter eta zerbitzariak elkartu gura dituzte.

Mende erdi pasa da. Zelan gogoratzen dituzu sasoi haiek?

Josefi Izacelaya: Sasoi gogorak izan ziren, baina, ilusio handikoak. Senarrak 13 urte egin zituen Ameriketara artzain, eta hara joateko pasaporte ere atera nuen arren, azkenean, taberna zabaldu genuen. Ingelesik jakin barik, eskola askorik ere ez, Ameriketara triste biziko nintzela esaten nion; arrebatariko bik ere taberna zuten, eta guk ere bizimodua aurrera aterako genuela esaten nion. Gizon

zintzoa, argia eta itxura onekoa izanik, primeran arituko zela tabernan, eta nik berba egingo nuela jendeagaz. Arrebek lagundu eta erakutsi ziguten tabernan lan egiten. Zabaldu genuenean, sekulakoa izan zen!

Bestelako sasoiak ziren...

J.I.: Ordura arte, neska gazteak

“**Txikitoa pezeta batera igo genuenean, manifestazioa egin zuten txikiteroek**”

ez ziren tabernetara sartzen; andra-gizonak, edo senargaigaz sartzen ziren. Gure Kabiya kafetegi berria zabaldu zela, euskaldunak ginela... bolo-bolo zabaldu zen. Orduan baino ez ziren hasi andrak sartzen.

Bezeroa asko aldatu da. Txikitotik kiantzara pasatu gara?

Oihane Alacano: Ohiturak asko aldatu dira. Urte asko ez dela,

arratsaldeko poteoan irten, eta afafolean parrandan jarraitzen genuen. Orain, lokaletan egoten dira gazte asko, eta berandu irten dira, 01:00ak aldean. Txikiteroaren figura galduko delakoan nago. Orain, bezeroak kiantza edo *rueda* eskatzen du, bai.

J.I.: Txikitoa hartzen zen lehen; 90 zentimoan. Gero, pezetara igo genuen eta manifestazioa ere egin zuten txikiteroek. Tabernagaz hasi ginenean, koinatak andrak zaintzeko esaten zigun; kopa berdeetan ateratzen genien edatekoa.

O.A.: Orain ez dituzte 15-20na ardo hartzen; lau-bosna baino ez.

Durango Azoka ere orduantxe egin zuten lehenengoz?

J.I.: Bai. Inork ez zekien nola joango zen, Franco bizi zen artean. Arrakasta itzela izan zuen. Euskal Herri osoko jendea etorri zen, Iparraldetik ere bai. Idazleak ere sartzen ziren; Xabier Lete, adibidez. Tabernaren dekorazioa ere oso euskalduna zen: Leopoldo Zugazaren eta Ibarrolaren koadroak genituen, eta Iparraldeko ‘Txoritxu nora

hoa...’ bertsoen grabatuak arreta deitzen zuen; euskal abestiak zituen gramolak ere bai. Gazte asko etortzen zen; mendizaleak Atxartetik bueltan.

Haurdun zeuden orduan, sei hileko, eta sanfaustoak bertan.

J.I.: Bai. Ezkatzean nuen butakan egiten nuen lo. Senarra eta biok egoten ginen tabernan, eta Rosarito, gaztetako lagun handia. Etxekoa zen *Tiatxarito*.

Orain, Gure Kabiya ikusita, zer datorkizu gogora, Josefi?

J.I.: Bihotzak buelta ematen dit. Oraindik ere, egunero etortzen naiz tabernara, egun onak ematera. Eta jarraituko dut. Zorte handia izan dut tabernagaz; oso zoriontsua izan naiz, estropezuren bat edo beste izan arren. Askok dut eskertzeko zerbitzariari —etxekoak lez izan dira beti—, guk itxita taberna hartu duten maizterrei, eta, nola ez, bezeroei.

Asko aldatu da Goienkale...

O.A.: Asko. Taberna gehiago zabaldu dira. Baina, giroa ere aldatu da. Sasoi batean, egun guztian zehar mantentzen zen giroa; gozetan jente asko zebilen. Orain, gauz batzen da jendea. Askok aldatu dira ohiturak. Egoera ekonomikoa ere ez da ona.

Famatuak ziren Gure Kabiya tortillak. Orain, berriz, rabak...

J.I.: Banderillak egiten genituen, pilo! Orain ere askotan esaten didate: zelako tortillak

zuonak! Goseagaz etortzen zirela esaten diet, eta, orduan, baina dena ona! (barrez). Orduko tortilletatik 30 urte ere igaro dira, baina askotan gogoratzen dizkidate tortillok, plazara joaten naizenean, adibidez.

O.A.: Holan da bai. Aurretik taberna zeukatenek esan ziguten, bai, “ia berdin ipintzen dituzuen rabak...”. Hobetu egin ditugu! (barrez). Asteburuan, batez beste, 120 errazio ateratzen ditugu.

Inoiz itxi da Gure Kabiya?

J.I.: Lehergailua jarri zutenean, 1975eko maiatzaren 13an. Dena berriztu behar izan genuen, barra libratu zen —oraindik dagoena—. Aurretik ere etorria zen polizia, kaleko jantzita, arazoak izango genituela esanez (musika euskaraz jartzen genuelako, komunetan zeuden idatzienengatik...). Etxean gengozen. Sasoi gogorak ziren, eta bildur ginen. Hala ere, kontrako efektua eragin zuten. Jende asko hurreratu zen tabernara. Laguntza handia eman ziguten.

Ostalaritzan ez dira sasoi onak.

O.A.: Lehen lan gehiago egiten zen, bai. Uste dut, orain, bakoitza berera doala gehiago. Egoera aldatu guran, orain urtebete, Sapuherrri sustapen elkarteak sortu genuen, denon artean jendea berriz kalera ateratu guran.

Jaietan murgilduta zaudete.

O.A.: Bai, umeentzako ekintzak, paella eta tortilla txapelketak, eta kontzertuak antolatuta ditugu.



Josefi eta Txarli hiru seme-alabekin, 1994an Gure Kabiya utzi zuteneko irudia.

Ainhoa Azpitarte Elgea (Zaldibar, 2.004) | Haur Kantari txapelketako parte-hartzailea

“Urduritasunak ahaztu egiten ditut kantatzen hasten naizenean”

Ekainean txapela jantzi zuen 11 urteko Ainhoa Azpitarte zaldibartarrak Haur Kantari txapelketan

> MUSIKA Itsaso Esteban
Nondik datorkizu kantuzale-
tasuna? Etxean zaleak dira?

Betidanik kantatu izan dut etxean, eta orain urte batzuk, aitak brometan proposatu zidan kantu lehiaketa batera aurkeztea. Horrela aurkeztu nintzen, lehenengoz, kantu txapelketara.

Eta zelako emaitza izan zenuen lehenengo horretan?

Orain bi urte aurkeztu nintzen lehenengoz, eta bigarren egin nuen. Aurtengo ekainean, bigarren aldiz aurkeztu, eta Bizkaiko lehenengo eta Euskal Herriko bigarren egin dut. Ilusio handia egin didate sariek.

Asmoa daukazu aurrerantzean ere parte hartzeko?

Bai. Gainera, datorren urtekoa izango da kategoria honetan parte hartu ahal izango dudana azkena. Gero, 12-15 adin tarte-koekin aritu beharko dut.

**Hartu diozu txapelketari mar-
txa? Zer dauka polita?**

Euskal kantak ezagutu eta kantatzeko aukera. Gainera, ekai-

neko finalean neuk sortutako kanta aurkeztu ahal izan nuen.

Euskal kanta tradizionalak kantatzeaz aparte, zeure kantak ere sortzen dituzu, beraz?

Bai, baina ez pentsatu, bakarria egin dut momentuz... *Ez zaitut ahaztu* izena dauka kantak, eta nire osabari egindakoa da; osabari gustatzen zitzaizkion gauzen ingurukoa da. Cris Etxepare gasteiztarrak sorturikoa da kantu horren musika.

Beste kantaren bat sortzeko ideiarik ez duzu izan?

Egia esan, momentuz ez. Saiatu izan naiz, baina apur bat aspergarria egiten zait batzuetan...

**Zapatuan, Zaldibarko Kultur Ar-
teko jaialdian kantatu zenuen. Zer moduz joan zen?**

Oso polita izan zen. *Xalbadorren heriotza*, *Negua joan da ta* eta *Ilargian* kantak abestu nituen.

**Bestela baino urduriago ipin-
tzen zara Zaldibarren kantatu
behar duzunean?**

Ez beste batzuetan baino gehiago: emanaldi guztien aurretik



ipintzen naiz urduri. Urduritasunak, baina, ahaztu egiten ditut kantatzen hasten naizenean.

**Urriaren 25ean Durangoko Pla-
teruena Kafe Antzokian ariko
zara. Zelakoa izango da em-
naldi hori?**

Haur Kantari txapelketaren lagin bat erakutsiko dugu hainbat parte-hartzailek, baina lehiaketatik kanpo ariko gara.

Zer lekutan gustatuko litzaizuke emanaldia eskaintzea?

Arriaga antzokian eta Euskalduna jauregian, esate baterako.

Zure lagunekin eta eskolakideekin kantuan ibiltzen zara?

Lagun gehienei neu kantatzen entzutea gustatzen zaie, eurek kantatzea baino gehiago. Baina, badaukat lagun bat, Lidia izenekoa, ondo kantatzen duena. Batzuetan, elkarregaz kantatzen ibiltzen gara biok, jolasten dugun bitartean.

Zer gustatzen zaizu entzutea?

Musika modernoa gustatzen zait, dantzagarria bada, hobeto. Ricky Martinena, Shakirarena, edo baita Zea Mays, Ken 7 edo Gatibu taldeena ere.

“*Aitak erdi broman proposatu zidan kantu lehiaketan parte hartzea*”

“*Arriagan edo Euskaldunan kantatu ahal izatea gustatuko litzaidake*”

Sanfilippo sindromea duten umeei eskainiriko bideoklipean, kantuan

Cris Etxepare abeslari gasteiztarraren ekimena izan da bideoklipa egitea



Zaldibar eta Iurreta artean bizi da Ainhoa Azpitarte, amagaz, aitagaz eta ahizpagaz. Duela urte gutxira arte, Zaldibarren bizi izan dira, eta gaur egun, Iurretan bizi arren, Zaldibarko eskolan jarraitzen du Ainhoak. Herri horretan ipini du beragaz eta Amaia Elgea bere amagaz solasaldia egiteko hitzordua ANBOTOk. Alabaren kantuzaleatasunaren adibidea eman du Amaia amak: “Egun osoa ematen du kantuan: sarritan, gaueko hamarrak direla-eta, geratzeko eskatu behar izaten diogu”, dio amak, barrez.

Haur Kantari txapelketan ezezik, Telecinco telebista kateko La Voz Kids programan ere sartzen saiatu da Ainhoa Azpitarte: “Bilboko castingean ez nuen aurrera egin, baina esperientzia polita izan zen”,

dio hamaika urteko neskatok. Amak, horrelako “gauza hain mediatikoan” parte hartzeak zalantza gehiago sortu zizkiela onartu du, baina “esperientzia bat gehiago bezala hartu dugu”. Orain arte bezala, kantuan ondo pasa dezala, gozatu dezala, da gurasoen ardura nagusia, amaren berbetan.

Biolinak ahots-korda

Juanjo Zelaia Euskal Kantuzale elkarteko kidearen berbetan, biolinak dauka Ainhoak ahots-kordetan. Cris Etxepare musikari gasteiztarrak ere Haur Kantari txapelketako emanaldi batean entzun zuen Ainhoa kantuan. San Filippo sindromea daukaten umeei laguntzeko, Etxeparek sortu duen bideoklip batean parte hartu du, besteak beste, Azpitartek.

> **MUSIKA** Itsaso Esteban
Urriaren 17ra arte, www.ametx-gazteria.net webgunean eman ahalko dute izena musika lehiaketa horretan parte hartu gura duten taldeek. Gutxienez, taldekideen erdia 18 eta 35 urte artekoa izatea da parte hartu ahal izateko baldintza nagusia.

Urriaren 17a orduko izena ematen dutenetatik bederatzita talde hautatuko dituzte epaimahaiak lehiaketan aurrera egiteko. Antolatzaileen berbetan, "taldearen pertsonalitatea, joaldiaren kalitatea, moldaketaren aberastasuna, eta zuzenekoetarako indarra" hartuko dituzte kontuan lehenbiziko hautaketa egiteko.

Urriaren 26an jakinaraziko dute zein talde diren aukeratuak, eta zein bederatzita joko duten azaroko eta abenduko emanaldietan. Azaroaren 20an eta 27an, eta abenduaren 11n izango dira hiru kontzertuak, eta epaimahaiak aukeratzen dituen azken hiru taldeek joko dute datorren urte hasieran egingo duten finalean.

Hiru sari emango dituzte Durangaldeko III. Maketa Lehiaketa

Hasi da Durangaldeko Maketa Lehiaketaren izen-ematea

Urriaren 17ra arte eman daiteke izena, Durangaldeko III. Maketa Lehiaketan

ketan; epaimahaiaren iritzian onena den taldeak 1.500 euroko sari nagusia jasoko du; 500 euro euskarazko kanturik onena aurkezten duen egileak, eta

Zornotzako jaietan jo ahal izatea hirugarren sailkatzen denak.

Abadiñoko, Durangoko, Iurretako eta Zornotzako udaletako gazteria arloek elkarlanean

antolatutako ekimena da Maketa Lehiaketa hau. Lehenengo edizioan, orain urte bi, Kilauea taldeak irabazi zuen, eta Mockers hirukote durangarrak, iaz.



Mockers taldeak irabazi zuen iaz Durangaldeko Maketa Lehiaketa.

GEURE DURANGALDEA

**ARANTZA
ARRAZOLA
ETA MAIDER
LARRAÑAGA**

San Agustín
kulturgunea



Triangelua

Sarritan, gure lana maitasun istorio baten modura irudikatzen dugu. Hiru erpineko amodioa, antzerkigileak, antzerkizaleak, eta antolatzaileak osotutako maitasun triangelua. Platonikoa, egileak, antolatzaileak eta zaleak, bakoitzak bere baitan bestearenganako eragina irudikatzen duenean. Batzuetan, mistikoa bizipenak muturreraino eramaten direnean. Karnala, aretoak jendearen epeltasunaz janzten direnean. Inozentea, egileak ulertua izango dela sinesten duenean, zalea asebeteta aterako dela uste duenean, antolatzaileak aukeratutako proposamenak ikuslearen babesa izango duela espero duenean. Lizuna, inoiz esan ezin direnak bururatzen zaizkigunean. Sinbiotikoa, beti, zentzu gutxi izango dutelako egileak, zaleak, antolatzaileak bestea gabe.

Sentimendu horiek guztiak ezkututzen dira udazkeneko denboraldirako prestatutako programan. Begi bistan erraz ikusten da Euskal Herrian egindako lanak tarte ederra duela, baita euskaraz egindako antzerkiak ere. Antolatzaileon iritziz, uzta oparo eta duina sortu dute egileak. Orain, zu behar zaitugu, ikusle, zale, antzerkizale, izan zaitez platonikoa, mistikoa, karnala, inozentea, lizuna... denak edo nahi dituzunak, ez dizugu betirako maitasuna eskatuko, aliantzaz lotutako ezkontza haustezina. Erabil gaitzazu, izan gaitezen ilunabarrean maitale, behin besterik ez bada ere, gozatu dezagun elkarrekin... eskatu nahi dizugun gauza bakarra sinbiotikoa izan zaitezela da, zu gabe gure triangelua herren izango baita.

'A flor de piel' argazki bilduma, Durangon

Domekara arte egongo da erakusketa, Museoan



Domekara arte egongo da erakusketa, Durangoko Museoan.

> ERAKUSKETA

Arka Devbil argazkilariaren *A flor de piel* bilduma dago Durangoko Arte eta Historia Museoan ikusgai. Bere ama minbiziak jota hil ostean Arka Devbil argazkilariak egindako argazkien bilduma da *A flor de piel*. Artistaren bizitza erabat eraldatu zuen garai hura modu autobiografiko batean kontatzen dute erakusketako argazkiek. Sentimenduei buruzko erakusketa da, gordina bezain poetikoa.

Bere ama minbiziak jota hil ostean Arka Devbil argazkilariak egindako lana da 'A flor de piel'

Domeka honetara arte egongo da erakusketa zabalik: zapatuan, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara; eta domekan, 11:00etatik 14:00etara.

Liburu berria kaleratuko du Sarrionandiak Azokan

> LITERATURA

Saiakera liburu berria kaleratuko du Joseba Sarrionandiak Durangoko Azokaren 50. ediziorako. Bere hausnarketa politikoen berri emango du 140 orrialde inguruko liburuan. Iaz, Mondragon Unibertsitateak antolatutako Euskal Kulturaren Transmisioa graduondokorako berbaldi bi prestatu zituen Sarrionandiak, eta lan hori oinarri hartuta landu du saiakera. Alde batetik, bila-kaera politikoa aztertu du, eta, bestetik, literaturaz eta kulturaz egin du gogoeta. Gainera, graduondokoa parte hartu zutenetako batzuen ekarpenak ere jasoko ei ditu, Pamiela argitaletxeok azaldu dutenez.

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia www.plateruena.net
Landako etorbidea, 4A | 48200 Durango | Tel.: 946 030 300

JAT ETX EA EGUNEKO MENUA IGANDEETAN MENU BEREZIAK	URRIAK 3 22:30ean MIKI NADAL BAKARRIZKETA	Pub Quiz 6 Friday 23rd October, 9:30 pm Plateruena-Antzoki in Durango	URRIAK 25 18:00etan KANTALDIA KANTALDIA
	URRIAK 23 21:15etan DURANGO'S PUB QUIZ LEHIAKETA		

¡Ahora!
Maite Guevara

Urriaren 3an
20:00etan

Sanagustinalde, 12
Tel.: 946 030 021
sanagustin@durango-udala.net

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO UDALA



JATETXE GIDA

ÑAM!**PLATERUENA Kafe Antzokia**

Landako etorbidea, 4

Tel.: 946 030 300

Egunero zabalik. Menu bereziak, egunekoak, taldeentzakoak eta ospakizunak.

ÑAM!**LAPIKO**

Frantzisko Ibarra, 3 DURANGO

Tel.: 946 218 122Etxeko pizzak. Eguneko menua, karta berria. Etxera eramateko zerbitzua.
www.lapikodurango.com**ÑAM!****MENU BEREZIA**Sarrerakoak (bi aukeran)
Entsalada
Patata frijituak
Zatitutako txuleta errea
Postrea
Ogia eta edaria**60€**
bikoteko
(BEZa barne)**ÑAM!****PEDRO JUAN**

San Antonio, 1 BERRIZ

Tel.: 946 826 246

Eguneko menua. Karta. Domeka, astelehen eta martitzen gauetan itxita.

**JULIANTXU**

Iturriza, 2 BERRIZ

Tel.: 946 824 077Karta. Txuleta errea.
75 lagunentzako jangela.**ÑAM!****IBARRA SAGARDOTEGIA**Ibarra auzoa, z/g · ZORNOTZA
www.ibarra-sagardotegi.com
Tel.: 946 731 100Egunero zabalik.
Gure upategian egindako sagardoa.
Aparkaleku pribatua eta jolastokia.

Ibarra Sagardotegiaren eskutik bi personarentzako menua zozkatuko dugu

Ze egunetan antolatuko dute Angelman sindromea duten umeen aldeko jaialdia?

Zozketaren irabazlea: **Olaia Madina** zorionak!
ERANTZUNA: zozketa@anboto.org helbide elektronikora edo
ANBOTO astekarira - Bixente Kapanaga, 9 - 48215 Iurreta**ZORTE ON!**



Mireia Delgadok eta Nagore Txintxurretak ipuin ilustratua eskaini zuten webgunearen aurkezpenean.



Bibliografia zabala dago eskura, webgunean.

Haur literaturaren inguruko atari berria aurkeztu du Berbarok

‘www.haurliteraturaretoa.eus’ helbidean dago webgune berria kontsultagai

> LITERATURA Itsaso Esteban Bi urtetik hamasei urtera arteko irakurzaleentzako proposamen literarioen gida osatu du Berbarok Elkarteak Haur Literaturaretoa webgunean. Adinaren arabera sailkatutako bibliografia kontsultatu, eta bilaketak egiteko aukera eskaintzen du

www.haurliteraturaretoa.eus atariak: guraso zein hezitzaileentzako erabilgarri izan daitekeen askotariko materiala bildu dute bertan.

Mireia Delgadok eta Nagore Txintxurretak, hitzak eta marrazkiak baliatuz, kontatu zuten ipuinagaz gozatu zuten Plateru-

Bi urtetik hamasei urtera arteko irakurleentzako gida osatu du Berbarok webgune horretan

rueneko eguazteneko aurkezpena joan ziren ume eta helduek. Eduardo Galeanok sortutako Martinaren istorioa kontatu eta ilustratu zuten, Platerueneko ekitaldia hasteko. Ondoren, atari berriaren aurkezpen bideoa erakutsi zuen Berbarok elkarrekin, eta Meritxel Etxagibel proiektuaren arduradunak, webgunean sartu, eta kuxkuxeatzera gonbidatu zituen bertaratutakoak.

Durangoko Azokaren barruan atontzen duten Sagunbarra Gunean bezala, ikasturtean zehar ere umeen irakurke-

Interneteko atari berriaren aurkezpen bideoa erakutsi zuten Platerueneko eguazteneko ekitaldian

tarekiko zaletasuna bultzatzeko askotariko ekintzak burutzen ditu Berbarok. Ipuin kontalarien saioak, antzerki emanaldiak zein idazleekin solasaldiak antolatzen dituzte, besteak beste, Berrizko, Durangoko, Elorrioko, Zaldibarko eta Zornotzako ikastetxeetan.

Antzerkizaleentzako Banarteren eskaintza

Ahotsa lantzeko ikastaro bat ere eskainiko dute

> ANTZERKIA

2015-2016 ikasturtean eskainiko dituen tailerren berri eman du Banarte Antzerki Taldeak. Urritik ekainera arte, eguaztetenan egingo dituzte, esate baterako, antzerki tailerreko saioak. Aitziber Bilbao elorriarra izango da tailer horretan irakaslea. Aurretik antzerkiaz ezelako esperientziarik ez daukaten 15 urtetik gorako antzerkizaleei zuzenduriko ikastaroa da, antolatzaileen berbetan, “norbere burua ezagutzeko” aukera. Au-

rreko urteetan bezala, ikasturteko azken hiruhilekoan Errota kultur etxean aurkeztuko duten obra prestatzen ariko dira.

Ahotsa lantzeko ikastaroa ere eskainiko du Banarte Antzerki Taldeak, seigarren urtez. Ainhoa Bilbaok gidatuko du ikastaro hori, eta urritik abendura bitartean egingo dute.

Ikastaroen inguruko informazioa www.banarte.net webgunean eskuratu daiteke, eta banarte@gmail.com helbidera idatzita eman daiteke izena.



Ikasturte amaieran, Errotan aurkeztuko dute ikastaroan landutako obra.



Iazko txistulari eguneko parte-hartzaileak, udaletxe plazaan.

Txistu Eguna antolatu du, biharko, Zornotzako Udazken taldeak

Eibarko, Iruñeko, Gasteizko, Bermeoko eta Durangoko taldeak gonbidatu dituzte

> MUSIKA

Zornotzako Udazken txistu taldeak antolatu du Txistu Eguna XV. edizioa. Zornotzako txistulari talde horretako musikariek batera, Eibarko Usartza, Iruñeko Bizarzuri, Gasteizko Adurtza, Bermeoko Karkinkabara eta Durangoko Jaizale taldeek parte hartuko dute zapatuko hitzordu horretan.

Arratsaldean, kalejira batez emango diote egitarauri hasiera. 17:30etik aurrera,

txistu talde bakoitza herriko zonalde batean zehar ibiliko da jotzen, eta 19:00etatik aurrera, guztiek elkarrekin egingo dute kalejira, Zornotza erdigunean. Udaletxe inguruan, Luis Urren-

19:00etatik aurrera, txistu talde guztiek elkarrekin egingo dute kalejira, herriko erdigunean

goetxea kalean, Euskal Herria eta Nafarroa plazetan, eta Zelaieta eta Harrison parkeetan joko dute, besteak beste.

Txistu Egunean bakarrik ez, urteko domeka guztietan ere txistuaren soinua herrian zehar zabaltzen dute, Udazken taldeko kideek. Domekero ateratzen dira kalejira, eta Zornotzako auzoetako jaietan ere jotzen dute. Izan ere, “txistuaren zabal-kundearen alde lan egitea” da taldearen helburuetako bat.

Oier Ardanza, Bartzelonako La Massian findu gura duten harribitxi durangarra

Real Madril eta Joventut taldeek ere nahi zuten; 2001ean jaiotakoen artean, promesarik handienetakoa da



Oier Ardanza Bartzelonagaz jokatzen.

> SASKIBALOIA J.D.

Azken urte bietan, Joventut eta Real Madril lako talde botereitsuak atzetik izan ditu, baina, azkenean, Bartzelonaren eskaintza hobetsi du Oier Ardanza (Durango, 2001). Tabirakotik joanda, Bartzelonako kadeteen taldean jokatuko du aurten. Dagoeneko, La Massian bizi da, jokalaria gazteak hezteko mundu mailan dagoen akademiarik emankorrenetakoa. Harribitxiak fintzeko ez dago toki hobirik, eta esperientzia handi hori barru-barrutik biziko du aurten durangar gazteak.

Ardanzak txiki-txikitatik eta oso gertutik bizi izan du saskibaloia. Jesuitak ikastetxean ikasi du, eta aita Imanolek, bertako irakaslea izateaz gainera, saskibaloia talde asko entrenatu ditu azken 15 urteetan. Tartean, Oier bera. Laugarren mailatik aurrera, bost urtetan, semea partaide zen saskibaloia taldea entrenatu zuen. Baina, zaletasuna lehenagotik datorkiola dio. “Hiru urte nagusiagoa den Aitziber arreba ere saskibaloia jokalaria da, eta Oier haren entrenamenduetara joaten zen”, gogoratu du Imanolek: “Ez zuen jokatzen, baina entrenamendu saioak egiten zituen eurekin. Sei-zazpi urte izango zituen orduan”.

Eskola kirolek kirol federaturako saltoa Tabirakon eman zuen. Haur-kategoriako adina izanda, Tabirakoren kadeteekin

aritu zen iaz, Euskal Ligan, “oso maila exigentean”, Tabirakoko presidente Ina Mendiberen esanetan. Bera baino urtebete edo bi nagusiagoak ziren jokalarien kontra jokatu arren, “ez zen kokildu, ezta gutxiago ere, eta ausardiaz jokatu zuen”. Labur esanda, “gozamina izan da Oier gure taldean izatea”. Jokalari “umila” da Mendiberen ustez, eta “umiltasun horrek asko lagundu diezaioke gora heltzen”.

Euskadigaz ezagutzera

Orain urte bi, Autonomien Arteko Espainiako Txapelketa jokatuz Euskadiko selekzioagaz, San Fernandon (Cadiz), eta talde handietako begiraleek orduan jarri zuten arreta Oierrengan. Joventuteko arduradunak txapelketan bertan hurreratu zitzaizkion familiari, eta, handik

Bartzelona: “Bere belaunaldiko jokalaririk garrantzitsuenetakoa da gura ustez”

gutxira, Real Madriletik eta Bartzelonatik deiak jaso zituzten. Harrezkero, hiru taldeekin hainbat torneo jokatu izan ditu. “Etorkizunean bere taldekide izan zitezkeenekin esperientzia bat bizitzea zen helburua”, dio Imanolek. Erabaki zuzena har-

tzeko bizipenak, sentsazioak eta informazioa pilatu zituen.

Bartzelonaren laudorioak Bartzelonako saskibaloia klubeko ordezkariak Anbotori konstatu diotenez, “su txikitik konstatu den fitxaketa izan da”. Cadizen lehenengoz ikusi zutenean, “dohain bereziak ikusi genizkion, jokalaria desberdina dela konturatzeko modukoak”. Harrezkero, pazientziarekin itxaron dute, familiak une egokia zela erabaki arte. Kadete adina izan arte, ez zioten joaten utzi nahi. Azkenik, iazko udaberrian jaso zuten baietza.

Oierrek 14 urte ditu, eta “etorkizuneko apustu garrantzitsua da”, Bartzelonako ordezkariak esanetan: “Ikusi genuen lehen unetik erakarri zuten gure arreta bere dohain tekniko eta fisikoekin”. Laudorio horiek gutxi balira, denetan handienarekin amaitzen dute: “Gure ustez, bere belaunaldiko jokalaririk garrantzitsuenetakoa da”.



Oier Ardanza Tabirako Baquegaz.



Aitziber Ardanza
Durango, 1998

“Esperientziagaz gozatzeko da eman diodan aholkua”

Oierrentzat bere bizitzako ohiko osagai izan da saskibaloia. Amak gaztetan jokatu izan du. Aita, besteak beste, Tabirako Baqué gizonen lehen taldeko laguntzailea da gaur egun, eta arreba Aitziberrek Tabirako juniorretan jokatzen du. Nebarekin askotan egoten da Aitziber, telefonoz ez bada, skype bidez. Bartzelonak ez die adin txikikoei adierazpenik egiten uzten eta Aitziberri galdetu diogu Oier zelan dabilen.

Noiz joan zen Oier Bartzelonara?

Abuztuaren 25ean geuk —familiak— eramanez Bartzelonara. Asteburu hantxe eman ostean bueltatu ginen. Lehenago ere egonda gaude La Massian, azpiegiturak ikusten. Itzela da, ikusgarria. Oso ondo dago.

Zer dio Oierrek? Pozik dabil?

Pozik dagoela dio. Azken batean, gustatzen zaiona egiten ari da. Esaterako, asteon, Du-

baiko—Arabiar Emirerri Batuetako— torneo batean egon da, eta oso pozik ibili da, nahiz eta ezin izan duen partidurik jokatu belaunetako hazgaiak direla eta. Orain, errehabilitazioan dago, eta laster egongo da jokatze moduan. Aurten, nahiko hazi da, eta 1.90eko garaiera du.

Hartueman mantentzen duzue?

Askotan egon naiz beragaz, telefonoz eta skype bidez. Gurasoak asteburu honetan doaz Bartzelonara. Oraindik ez dit esan gure falta igartzen duenik, baina, hilabete baino ez da igaro joan zenetik... Egia esan, nik igartzen dut bere falta, bai. Eta, seguruenik, gero eta gehiago igarriko dugu etxekook.

Umetan, Oier zuen entrenamenduetara joaten ei zen. Zer gogoratzen duzu sasoi hartatik?

Aita entrenatzailea zen, eta Oierri saskibaloia asko gustatzen zitzaionez, astean pare bat egunez gurekin entrenatzera etortzen zen. Taldeko beste bat zen, baina ez zuen partidurik jokatzen, jakina. Orduan ere sumatzen zen ona zela. Taldekide beti azpimarratzen zuten zein arina zen. Ezin harrapatu!

Arreba nagusi moduan, bere aholkularia izan zara?

Benetan nahi zuena egiteko eta esperientzia horregaz gozatzeko esan nion, hori izan zen nire aholkua. Talde handiek berarengan interesa zutela jakin zuenean, ikaratu egin zen apur-

bat; normala, oso gaztea zen eta. Ondoren, hazten zihoan heinean, argi zuen joan egin nahi zuela, baina ez zekien nora.

Oierrek badu jokalarik gustokorik?

Nik dakidala, ez. Ez dit esan, behintzat. Baskonia zalea da, aitaren eta nire antzera. Ama, berriz, Bilbao Basket zalea da.

Zu Tabirakoko juniorretan zabilta. Zer moduz?

Iaz, batzuetan, lehen taldeagaz entrenatzen nintzen, eta baten bat falta bazen, partiduetara joaten nintzen. Aurten berdin. Iaz, juniorretan, Euskadiko laugarren geratu ginen. Aurten, final fourrean sartzen eta Espainiako txapelketara sailkatzen saiatuko gara.

50 auto baino gehiago egongo dira XV. Klasikoen Rallyan

Gaur, 21:00etan irtengo dira auto klasikoak, Landako Gunetik



Bihar, 11:00etan irtengo dira, eta 20:00ak arteko ibilbidea egiteko asmoa daukate.

> RALLYA Markel Onaindia Gaur eta bihar jokatu da Durangoko XV. Klasikoen Rallya, eta, antolatzaileek adierazi dutenez, 50 auto baino gehiago egongo dira parte hartzen. Hainbat motatako auto zaharrak ikusi ahalko dira errepideetan: Ferrari, Porsche, Lancia, BMW, Audi, Ford Escort, Peugeot,

Seat, VW... Gaur, 21:00etan irtengo dira autoak, Landako Gunetik, eta lehenengo 02:30 inguruan ailegatzea aurreikusitako dute. Bihar, ostera, 11:00etan irten, eta 20:00etara arteko ibilbidea egiteko asmoa daukate.

Lasterketa hau hainbat arazoirengatik da berezia. Adibidez, 30 urtetik gorako autoak di-

renez, rallya 50 km/h abiaduraz azpitik korritzen da, eta errepideak ez dira trafikorako ixten. Gainera, denbora teorikoetara gehien hurreratzen denak irabazten du proba. Hori neurtzeko, 100 kontrol puntu inguru ezarriko dituzte antolatzaileek. Lasterketaren ezaugarriak eta parte-hartzea kontuan hartuta,

Athletic eta Eibarreko alebinak Berriz Cup-en

Berrizko kimuen hiru taldek jokatu dute kopan



Kimuen mailako hamasei talde lehiatuko dira asteburuan. Peio Agirre

> FUTBOLA M.O.

Bihar eta etzi, kimuen II. Berriz Cup futbol txapelketa jokatu da Berrizburu futbol zelaian. Guztira, hamasei taldek parte hartuko dute, eta, tartean, Berrizko hiru egongo dira. Gainera, Athleticen eta Eibarreko kimuak ere etorriko dira txapelketan parte hartzera. Beraz, inguruetakoko jokalaririk onenetakoak ikusi ahal izango dira Berrizburuko berdegunean.

Zapatuan, ligaxka estiloan neurtuko dituzte indarrak. Lau multzotan banatuta egongo dira taldeak, eta horien baitan, denek denek kontra jokatu dute. Goizeko 10:00etan hasita, iluntzera arte luzatuko da futbol jardunaldia, eta partiduen iraupena ez da 45 minututatik pasatuko.

Espainiako probarik onena dela uste dute antolatzaileek.

Muniketa, birritan

Ibilbidea sekretua dela azaldu dute, baina, zaleei begira, hainbat aurrerapen eman dituzte. Esaterako, Muniketatik birritan pasako dira bihar, 11:00etan eta 12:20 inguruan, hain zuzen.

Iaz, Jorge Bethencourtek eta Asier Madariagak osatutako bikoteak irabazi zuen proba

Arratsaldeko 16:00etatik aurrera, Otxandiotik Eskoriatzarako zatia burutuko dute klasikoen gidariak.

Durangoko bost talde

Iaz, Jorge Bethencourtek eta Asier Madariagak osatutako bikoteak irabazi zuen proba, 1978ko Peugeot 504 bategaz. Aurten ere parte hartuko dute, baina bakoitzak bere aldetik. Bestalde, aipatzekoa da gidari bizkaitar asko egongo direla, eta Clasicos Durango taldeak bost auto aterako dituela errepideara. Espainiatik, Frantziatik eta Italiatik ere etorriko dira auto klasikoen gidariak.

Domeka goizean, bigarren faseari ekingo diote, hamabi talde onenen artean. Arratsaldean jokatu da azken fasea, zortziren artean.

Lau multzotan banatuta egongo dira taldeak, eta horien baitan, denek denek kontra jokatu dute

Beste hamaika

Berriztarrez eta aurrez aipatutako beste taldeez gainera, beste hamaika talde hauek jokatu dute Berriz Cup-en: Amorebieta, Antiguoko, Iturrigorri, Danok Bat, Real Union, Getxo, Beti Ona, Arratia, Vitoria, Gernika, eta Santutxu.

ADITUAREN TXOKOA

ENERITZ ITURRIAGA

Txirrindularitza



Madrid Challenge

Orain asteaburu bi, Madrilen izan ginen. Lehenengo aldiz, Espainia mailan, txirrindulari profesionalekin batera, neskentzako karrera egin zuten, Castellana pasealekuan, gora eta behera. Sorpresa itzela izan zen guretzat, eta aurrerapauso handia nesken txirrindularitzarako! Nire denporetan, inoiz ez genuen espero horrelako gauzarik, eta aurten heldu da, bai! Imaginatu hemengo nesken gogoia eta han egoteko nahia, euren idoloen ondoan. Izugarriko albisteak eta gertaera handiak izan da.

Azkenean, munduko neskarik onenak etorri ziren, eta, lehenengo aldiz, mutilen 'antzerako' sariak irabazi zituzten. Oso giro polita izan zen; batez ere, gero, mutil txirrindulariekin egon ginelako, eta euren taldeak ere han zeuden, guri begira, ilusioz eta pozik.

Telebista ere han egon zen, eta, nahiz eta esatariak askorik jakin ez, irudiak izan ziren garrantzitsuenak. Zergatik? Hemen dago gakoia: munduko txapelketagaz urtea amaitu, eta sponsorren bila hasteko sasoiak da udazkena, hurrengo urterako taldea lotuta, gure neskak berriro ere horrelako karreteran egon daitezten. Orain datoz buruko minak, eta zenbakiak koadratu beharra, dena aurrera joateko.

Beraz, bulegoetan lan egitea tokatzen da, hemendik eta handik dirua ateratzea publikizaterako, gure etxeko neskak berriro ere errepidean egon daitezten, kilometroak eta kilometroak pozarren egiten, gero, poz hori, geuri eman ahal izateko. Beraz, laster ikusten banauzue, seinale ona izango da, eta eurekin, gaztetxoekin, lanean jarraituko dogu!

MATERIAL DE CONSTRUCCION
MACOBER

Eraikuntzarako materiala
MACOBER

Zeramika eta gresa

Eitua industriagunea, 66 BERRIZ
Tel.: 946 827 890 macober@movistar.es

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Agirre Lehendakari kalea, 8 - 48200 Durango
Tel.: 946 202 710 - Faxa: 946 816 577
posta elektronikoa: jrueda@segurosbilbao.com

· Etorri ikustera ·



ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Iurretan, Durangon eta Elorrion aukera oso onak!



Durangoko herrigunean



*Energia-eraginkortasun
handiko etxebizitzak*



Hiriko txaletak



Oiz mendira begiratokiak




Leku zabalak

www.zarateyexpe.com

Bixente Kapanaga, 19

Iurreta - Bizkaia

946 816 673

 Zarate eta Elexpe Eragileak SL.

Mailari eustea helburu Mallabia, Buskantza B eta Sasikoa B taldeek

Mallabiak bikain hasi du Euskal Liga lehen jardunaldian, 12-2 irabazita



Buskantzako taldea elastiko hori-beltzagaz, aurrendenboraldiko partidu batean.



Mallabia Altaldi taldea osatzen duten jokalariek.

> ARETO FUTBOLA J.D.

Areto futboleko Euskal Ligan, hasi dute denboraldia Durangaldeko hiru ordezkariek: Mallabia Altaldi, Elorrioko Buskantza B eta Durangoko Sasikoa B taldeek. Lehen jardunaldian, Mallabiak jipoitu egin zuen Eraso Aiara (12-2); Elorrioko Buskantza Bk ere hiru puntuak batu zituen (4-3) Miranda Bayasen aurka, nahiz eta joko aldetik, baduten zer hobetu. Sasikoak, aldiz, amore eman behar izan zuen Otxartaberen kontra (4-8).

Hiru ordezkarien artean, Mallabia da filiala ez den talde bakarra. Aurten, hiru jokalarik utzi dute taldea, eta berri bi hartu dituzte. Etorri edo igo berriek "oso emaitza onak eman dituzte aurrendenboraldian", Mallabiako Juan Carlos Perezen berbetan. Mikel Aranburu goletzaile nagusia izan zen, iaz, filialean, eta, aurten, lehen taldean dabil: "Beragan konfiantza dugu, eta gola eman deizaigukeela uste dugu". Mikel Aguado, aldiz, futboletik dator. Berriz jokatzen, iaz: "Oso ondo egokitu

da jokamolde berrira, fisikoki indartsua da, eta atzeko aldean segurtasuna eman digu".

Hamar jokalarik (bi atezain) bakarrik osatzen dute taldea, baina hori filialeko jokalarientzat motibagarria izan daitekeela uste du Perezek. Iazko sailkapena hobetuz, sailkapenaren erditik gora geratu gura dute: "Taldeari hori exijitu ahal diogula uste dut".

Elorrioko Buskantza B oraindik egiten ari den taldea da. Iaz, taldea gaztetzeko bidea hasi zuten, eta, prozesu horretan murgilduta daude. Aurten, Christian Gulin ekarri dute Mendibeltz taldeetik, eta Unai Arregui Buskantzako gazte mailatik igo dute. "Zaila da esatea non ibiliko garen, lan asko dugu egiteko", dio Iker Saenz de la Cuestak, baina iazko taldea indartu dutela uste du.

Sasikoa Bk entrenatzaile berria du aurten: Nor Boughlala bilbotarra. Futbol entrenatzailea izan da, areto futboleko bigarren entrenatzaile lanak egin izan ditu eta hauxe du aurreneko esperientzia lehen entrenatzaile moduan. Aurrendenboraldian partidu bakarra jokatu dute eta oraindik taldea ez dago ehuneko ehanean. Hala ere, lehen partiduan lanak eman zizkioten Otxartabe indartsuari. Galdu arren, 4-2 irabazten joan ziren.


Castroviejo brontzetik hiru segundora geratu da

> TXIRRINDULARITZA

Erlojupeko Munduko Txapelketan lan aparta burutu du Abadiñon bizi den Jonathan Castroviejok (1987, Getxo). Movistar taldeko txirrindularia laugarren geratu da, brontzeko domina emango zion postetik hiru segundo eskasera. Zehatz esanda, bi segundo eta 64 ehunenera geratu zaio hirugarren postua.

Getxoztarrak saio bikaina egin zuen Richmonden (AEB),

baina ez Jerome Coppel (Frantzia) harrapatu eta podiumera igotzeko adinakoa. Erlojupeko urrezko domina Vasil Kirienka



JONATHAN CASTROVIEJO

errusiarrak irabazi zuen, ezustekoa emanda. Adriano Malori sailkatu zen bigarren tokian.

Kilometro bertikalean, bikain Aitor Ajuria

> KORRIKA

Mendi lasterketetan zein kilometro bertikalean etorkizun oparoa izan dezakeela erakusten ari da Aitor Ajuria gaztea (1998, Otxandio). Esaterako aurten bigarren amaitu zuen Zegama-Aizkorrin gazte mailako lasterketa. Joan zen asteburuan, modalitate berri bat probatu zuen, lehenengoz, Uharte Arakil-Berriain kilometro bertikala, eta 21 urtez azpi-

ko azkarrena izan zen (44.30). Sailkapen orokorrean, laugarrena izan zen. Horrela, Euskal zirkuituaren barruko Euskadiko Kopan parte hartuko du. Urriaren 10ean, Anbotoko kilometro bertikalean izango da, eta, urriaren 23an, Araia-Aratzeko igieran.

Uharte Arakilen Garazi Sampedro atxondoarra bedertzigarren sailkatu zen emakumeetan: 1.03.28.

Adin guztiei begirako herri lasterketa, bihar, Iurretan

> KORRIKA

Iurretako jaiak direla aprobeztatuz, Iurretako Udalak Mikel Deuna Herri Lasterketa antolatu du, zapatuak, Gu Be Bai Runners taldeak lagunduta. Ariketa fisikoa egitea adin guztietarako onuragarria dela sustatu gura dute ekimenagaz.

Beraz, lehiakortasuna bigarren maila batean geratuko da. Lasterkertak osasungarriak diren ohiturak bultzatu gura ditu. Horregatik, ibilbideak familia

giroan osatu daitezke, eta baita oinez ere, nagusien kasuan. 2006tik aurrera jaiotako gazteak dituzten familien ibilbideak 340 metro ditu, eta 12:00etan hasiko da, Askondon. Bigarren familia ibilbidea (2001-2005 arteko umeak) ordu laurden geroago hasiko da. Nagusien lasterketa 12:30ean abiatuko dute, eta oinez zein korrika osatu daiteke. Izen-ematea egunean bertan egin daiteke 10:00etatik 11:00etara. Amaieran luntxa egongo da.

Ahari Iurreta Martxa Zikloturista, domekan

> TXIRRINDULARITZA

Iurreta Txirrindulari Elkarrekin martxa zikloturistaren 28. aldia antolatuko du, domekan. Martxa 09:00etan hasiko da, Iurretako Aita San Miguel plazan.

Ibilbideak 95 kilometro izango ditu. Muniketa igo, Gernikara jaitsi, eta Nabarnizetik Lekeitiora joango dira gero. Oletan lehenengo horniketa puntua ipini dute. Milloitik eta Markinatik igarota, Iruzubie-

tan berriro indarrak berritzeko aukera izango dute, Trabakua igotzen hasi aurretik. Azkenik, Berriz-Miota-Elorrio itzulia eginda, Iurretan helmugaratuko dira.

Izen-ematea

Izen-ematea egunean bertan egin daiteke, 8:55 baino ordu laurden lehenagotik. Federatuentzat, 10 euro da, eta federatu gabekoentzat, 20 euro.

AGENDA

> FUTBOLA

OHOREZKO MAILA

Elorrio - Trapagaran

· Zapatuan, 16:00etan, Eleizalden.

Iurretako - Urduliz

· Zapatuan, 18:00etan, Larrakozelaian.

MAILA GORENA

Zaldia - Larramendi

· Zapatuan, 17:00etan, Solobarrian.

LEHEN ERREGIONALA

Zorrontzako - Fruiz

· Zapatuan, 17:00etan, Larrean.

> ARETO FUTBOLA

MAILA GORENA

Abadiñoko Gaztetxe - Hegalariak

· Zapatuan, 17:00etan, Traña-Matienako kiroldegian.

LEHEN ERREGIONALA

Presion Break B - Mazusberri

· Zapatuan, 17:00etan, Berrizen.

Gu Lagunak - Pozgarri Adarre

· Zapatuan, 18:30ean, Landakon.

MAILA GORENA

Sasikoa B - Txoko

· Zapatuan, 19:00etan, Landakon.

EMAKUMEEN LIGA

Sasikoa - Iraultzaileak 2011

· Zapatuan, 17:00etan, Landakon.

Elorrioko Buskantza - Muskiz

· Zapatuan, 16:00etan, Elorrian.

> PILOTA

SAN FAUSTO ZESTA TXAPELKETA

- Gasteiz-Andoain

· Zapatuan, 18:00etan, Durangon.

- Noain-Markina

· Zapatuan, 18:00etan, Durangon.

- Mutriku-Durango

· Domekan, 12:30ean, Durangon.

OLAZAR TXAPELKETA

Lau 1/2erdian: Zabala-Alberdi

Binaka: Arrieta-Pujana / Labaka-Arratibel

· Urriak 1, 21:30, Zaldibarren.

> ERRUGBIA

EUSKAL LIGA

Emakumeak

Durango Nissan-Gaurisa-Gaztedi

· Zapatuan, 16:00etan, Arripausetan.

Elorrioko mendi birak hamarkada bi egingo ditu, etzi

> MENDIA

Erdella Mendizale Taldeak Elorrixoko Mendi Bira antolatuko du, domekan. Aurten, hogeigarren aldia ospatuko dute. 07:30ean jarri dute hitzordua plazan. 09:00etan bira txikia abiatuko dute. Aurtengo mendi itzuli nagusiak 32 kilometro izango ditu. Memaiatik Udaltzera (1.119 metro) igoko dira. Handik, Santa Luziara jaitsiko dira, eta Ansolatik berriro Intxorta eta Erdella igaroko dituzte. Bira txikiak 17 kilometro izango ditu. Memaiatik Kanpazarrerako bidea hartuko dute.

JAR ZAITEZ MARTXAN

16 ETA 29 URTE ARTEKO GAZTEENTZAKO PROGRAMA

**ENPRESAK
SORTZEA**

BANAKAKO
AHOLKULARITZA

DIRULAGUNTZAK
1100€

ENPRESAK
SENDOTZEKO
LAGUNTZA

LANA BILATZEKO
COACHING-A

**IZEN-EMATEA
ETA
INFORMAZIOA**

Ametx Erakunde Autonomoa (Amorebieta-Etxano)
T. 946 300 650 / gazteria@ametx.net

Behargintza (Durangaldea)
T. 946 232 522 / behargintza.mdurango@bizkaia.org

Fundación Izarra Fundazioa (Ermua)
T. 943 177 159 / proyectos@fundacionizarra.eu



Inmobiliariak

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ez. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

AGENCIA INMOBILIARIA
Fernando Uribe
Barrenkalea, 15 behea • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ETXEBIZITZAK ALOKAIUAN

- DURANGO: 1, 2 eta 3 logelako etxebizitzak alokagai. 575n-tik aurrera.

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

- TABIRAKALEA: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoa kanpora begira. Garaje itxia.
- MIKELDI: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, 2 komun eta egongela. Ganbara eta garajea. Berriztatua.
- FRANZISKO IBARRA: 4 logela, 2 komun, sukaldea, despentsa eta egongela balkoiarekin.
- MURUETA TORRE: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela balkoiarekin. Garajea eta trastelekua.
- KALEBARRIA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. 120.000n.
- ARTEKALE: 8 etxebizitza eraikitzen. Logela 1 eta 2koak. Trastelekuarekin. 128.000n-tik aurrera.
- ERDIALDEAN: 123 m2. Etxe osoak kanpora ematen du. Berriztatuko. Zonalde onean kokatua.
- ATIKO BERRIA ESTREINATZEKO. 2 logela, 2 komun eta sukalde amerikarra eta egongela. Garaje itxia eta terraza izugarriak.

ATXONDO

